




Zumalakarregi

XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta gozatzeko Erreferentzi Zentroa



Bisita ordutegia

Asteartetik ostiralera:
10:00-13:00/15:00-19:00
Larunbata eta igandetan:
11:00-14:00/16:00-19:00
Astelehenetan itxita



Iriarte-Erdikoa etxea, **Zumalakarregi Museoa** gaur egun, XVIII.mendeko baserri tipikoa da. Bertan bizi izan zen Zumalakarregi familia, hauen artean bereziki Tomas Zumalakarregi jeneral karlista eta Miguel Antonio Zumalakarregi politikoa liberala.

Euskal Herria XIX. mendean

Museoa, XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta gozatzeko Erreferentzi Zentroa da. Gaur egungo gizartea ezagutu eta ulertzeko garai nagusia izanik, eztabaida, gaurkotasan handiko XIX. mendean zehar bidai dinamiko eskaintzen du.

Museoaren bildumak

Zumalakarregi eta bere familiaren objektu adierazgarriez osatua: pertsonalak, apaingarriak, armak, sableak, ezpatak, fusilak, uniformeak, prefilatelia eta numismatika gaiak.

XIX. mendeko dokumentazio zentroa

Agiri multzoa, eskutitz sailak, gai desberdinei buruzko txostenak, prentsa, irudi gai ugari eta idazlan militar, biografiko, zientifiko eta orokorreko buruzko fondo bibliografikoak. Zentroa ikerlari mota guztiei dago zabalik.



Erakusketa iraunkorra

Zumalakarregitarrek Aintzinako Erregimenak zituen egitura politikoa eta sozioekonomikoen suntsiketaren eta Sistema Liberalak zekarrenaren arteko dardaretan bizi eta hil ziren. Gatazka belikoz eta aldaketa politikoa erdiragarriz jositako garaia izan zen.

Erakusketak XIX. mendeko euskal gizarteak izandako aldaketak azaltzen ditu, Karlistaden zergatiak, giltzarriak eta ondorioak azpimarratuz.

- Zumalakarregitarren garaia
- Karlistadak

"Bi mundu aurrez aurre" ikusentzunezko multimedia

11' irauten dituen emankizun honek XIX. mendeko Euskal Herriari buruzko laburpena eskaintzen du, liberalismorako pasabide bortitza, karlistadak, euskal gizartearen aldaketak eta industrializazioaren sorrera azaltzen ditu, irizpide didaktiko eta hezitzaileak erabiliz.

Lantegi elkarreragilea

XIX. mendeko gizartea, hau da, jendea, etxeak, janzkerak, bidaia... ezagutzeko gunea. Garai hartara hurbiltzeko modu desberdina eskainiz, proposamen erakargarri, ludiko eta partehartzaileen bidez: joku, jantzi eta arropak, puzzleak, buruhaukarriak, komikiteka, kiosko digitala.



Ekintzak

Oso eskaintza zabala eskaintzen du, familia, eskolaume zein helduei zuzendutako proposamen ludikoen ondoan espezializatuenak ere, hala nola, ikerketak, aldi baterako erakusketak, argitalpenak eta abar.

Bisitaldi gidatuak

Eskolaume zein helduen taldeei zuzenduak, material didaktiko, eskufoilto eta irakasleentzako azalpen gidak:

- Zumalakarregi anaiak: Tomas, jeneral karlista eta Migel, politikoa liberala
- Karlistadak
- Gerra eta bakea
- XIX. mendeko trenzubia. Ormaiztegi
- Burdinaren bideak
- Nekazal eta hiritar bizimodua


Ikastetxean erabiltzeko material didaktiko digitala eskaintzen dugu.

Museoko web gunea:

Oso dinamikoa, etengabe eguneratua, espezialitate eta dibulgazio eskaintza zabalekoa, heldu, gazte eta haurrei zuzendua. Azpimarratzekoak:

- **"Euskal Herriko historia militarra Euskal Herrian"**
 - Ekintza eta bataila nagusien deskripzio testuak, mapa eta grabatuekin. Liskar hauetan parte hartutako armada sailei, baita protagonisten nagusien biografiei buruzko informazioa ere.
- **"Zumalakarregi Museoko bildumagarri birtualak"**
 - Hileroko bildumagarriak .
 - "XIX. mendeko karikaturetan". Umorea, distortsioa eta kritika soziala.
 - "XIX. mendeko jendea". Historiako protagonista xumeak.
 - "XIX. mendeko hamarkadetan". Garaiko gertaeren inguruan ibilbidea.
- **"Joku digitalak"**
 - "XIX. mendeko tribiala"
 - "XIX. mendean bizi"
 - "Baina zer da hau?"

Zumalakarregi Museoko web gunea:
<http://zm.gipuzkoakultura.net>



Helbidea:
Museo-Zumalakarregi-Museoa
20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa)
Tlf.: +34 943-889900
fax: +34 943-880138
mzumalakarregi@gipuzkoa.net